

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Aguraingo "Curtidos-Harresi" 49.1 UE eremuko urbanizazio proiektuaren behin betiko onespena

Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko abenduaren 20ko erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen Aguraingo "Curtidos-Harresi" 49.1 UE eremuko urbanizazio proiektua, Aguraingo UE-49.1 egikaritze unitateko Hitzarmen Batzordeak aurkeztua. Esteka honetan eskuragarri dauden zenbait baldintza bete behar dira:

http://mail.agurain.eus/images/PDF/Kultura/2019/proyecto_de_urbanizacion_definitivo-completoCURTIDOSentorno.pdf

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 194.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Behin betiko onespentak administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edonola ere, egoki iritzitako beste edozein erreklamazio aurkeztu ahal izango da.

Agurain, 2019ko abenduaren 30a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES